



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Fikziozko lurraldeak

Tranbiaren itxaron guneko paretako iragarlean, Bilboko irudi apokaliptiko bat. Honelakoxea: bataila baten zeru gorridunean girotuta, Bilbao Arena kirol eraikin berdea herriaren gainetik gailentzen den gotorleku baten lez ageri da. Eraikinak superheroi funtzioa betetzen du irudian, herria metalezko espazio-ontzi hegalaria mehatxatzaile batetik babesten ari baita. Publizistak ongi harrapatu du –hirigileak ez bezala– Bilboko Miribilla auzoak, kokapen geografiko goratuan, Erdi Aroko gune gotortu baten itxura duela; edo beste modu batean esanda, auzo berriaren ezarpenak ez duela inguratzen duen testuinguru urbanoarekin zerikusirik. Kasualitatez –edo ez–, azken hamarkadetakoa hirigintzak Bilborako eskaini dituen kirol ekipamendu berriek, San Mames Barria eta Bilbao Arena, hiriarekiko domeinuzko kokalekuak dituzte, garai bateko gazteluen antzera. Bide batez, deskribaturiko kartelak bideo jokoen liga profesionaleko finala iragartzen zuen, poesia urbanistikotik urruti, baina, aldiz, zintzotasun osoz bat eginez Bilbok 2018. urterako ezarritako ekitaldi-festibalen ibilbide orriarekin.

Hitzez eta irudiz eraikitako horrelako errealitate paralelo edo fikzionatuek egiazko errealitatearen zenbait argibide erakusten dituztela sinetsirik, irudimen-jolasarekin jarraituko dut beste honekin: barbaroen konkista-irudi arketipotik tiraka, kostaldetik astiro eta gelditu gabe Donostiara gerturatzeko den gurutzaontziarena, turistaz erabat josia.

Gurutzaontzia, arrotza eta ezezaguna zaigun herri batetik datorren munstrotzat har dezakegu, tamainari erreparatzen badiogu adibidez. Abordatzeak errentagarritasuna izan dezan, ontziaren tamaina garrantzitsua da; bada, Donostiako zabalguneko edozein etxebizitza-eraikinekin konparatuz, esan dimentsio erraldoiak dituela. Eta nor ez da beldurtuko neurririk gabeko jendetzak, hiriaren adeitasun-tasa gaindituta, hirian desjabetze-efektua duenean, jendetza hori zoroen pare bertako baliabideak ustiatzera heltzen denean? Kolonizazio moderno honek antzinakoaren pareko ondorioak eragiten ditu lehorreratutako lurraldean bere legeak inposatzen dituenean, bertakoen bizitza erabat lardaskatuz.

Ez da broma, industria turistikoa fikziozko lurraldeen eraikitzaile da; plantak egiten dituen eszenografia fiskoak gustuko ditu. Herrixka eta hiri askoren alde zaharrak errealitate simulatu bilakatu dituzte, non kaleak atrezzoak besterik ez diren. Fatxada historikoak X izpiekin zeharkatuko bagenu, prekarietatea nagusi den logelak ikusiko genituzke, bizi-espazioak trasteleku bilakaturik, “Trainspotting” garaikidea grabatzeko prest.

Kondaira modernoetako protagonista maltzuraren papeira hirigintza eta lurralde antolakuntzak hartu dute, lurralde eta hiriak mugarik gabe ustiagarriak direla diseinatzerakoan. Irudi fikzionatuak distopiko gerta ez daitezzen, kritikoki begira diezaigun gure herri eta hirietan gertatzen ari denari. Munstroak irentsi baino lehen. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Itzulera operazioa


Maletari jaten eman diozu. Bainujantziak, toallak, txosnetako kamisetak, txankletak, eguzkitako krema, hortzetako ore eta eskuila, xanpua, xaboia, mendiko botak, kiroletako galtza motz eta kamiseta koloretsu finak, bisera, eguzkitako betaurrekoak, eltxoak uxatzeko spraya, irakurtzeko utzi dituzun liburuak, estreinatzeko utzi duzun koaderno eta *souvenir* dendetan erositako koadro eta postalak sartu dituzu. Baina ahal izan bazenu udan zanpatutako hondartza guztietako are-poto bana eta igo dituzun gailurretako aireari ostutako oxigeno bonbona bana ere sartuko zenituen aireportuko etiketak oraindik zintzilik dauzkan zure maleta gose-tuan. Eta ez dakizu zergatik baina ekainean erraz itxi zenuena gainezka eginda iritsi da irailera. Krema-lera itxi asmoz gainean eseri zarenean pentsatu duzu maletak hartzen modukoak direla: hiru hila-betez ateratzen direla mundura eta hiru hilabete horietan ahal duten guztia irensten dutela, bederatzi hilabeteko armairu iluneko hibernazioari eusteko.

Uda maletan eta maleta autoan sartuta ekin diozu itzulerako bidaiari, errepideko marra etenetan begirada galduta. Urtero bezala autoko irrati-diala arakatu duzu, kate arrotzek diotena ulertu nahian. Baina berehala aspertu eta musika ipini duzu. Gurasoekin umetan egindako bidaiez oroitu zara; aire giroturik gabeko Renault zahar hartaz eta Pantxoa eta Pelloren, Benito Lertxundiren, Eltzegorren eta Eganen diskoez. Atzeko eserlekutik miretsi zenuen munduari soinu-banda hura

itsatsi diozu zurekiko: Benito Lertxundiren ahotsa dute Pirinioek, Eltzegorren doinua Landek eta Pantxoa eta Pelloren melodiak Gaztelako lautada lehorrek.

Gasolindegiek eta ordainlekuek bakarrik geratu dute zure ibilera presatua. Autoz beteta datozer errepideak, eta aurreratzen dituzunen leihatilen barrura begiratzuz nondik ote datozen asmatu nahian egin dituzu kilometroak. Zure monotonia Euskal Herrira sartu zarenean aldatu da: musika itzali eta leihoa zabaldu duzu, aireak beste usainen bat, beste doinuren bat ekarriko zizulakoan. Baina Irungo ordainlekuko ilara baino ez zaizu iritsi. Mantso doaz autoak eta

zurearen gisako aurpegi nekatuak baino ez dituzu ikusten inguruan. Aldameneko autoko gidaria kantuan ari dela iruditu zaizu. Ezpainak irakurtzen ahalegindu arren ez duzu kantua deszifratzerik lortu. Umeta-ko gogoeta batek atera zaitu jolasetik: inoiz ez duzu ulertu izan urtea zergatik hasten den urtarrilean, mundua martxan irailean jartzen baldin bada. Aurten lanean finago ariko zarela agindu diozu zure buroari; kirola egingo duzula, lagunak zainduko dituzula eta hasi ez duzun koaderno eta bete eta irakurri ez dituzun liburu guztiak bukatuko dituzula. Baina ilara geldidago, iluntzen ari du eta piztu berri duzun irrati-tik Mikel Laboa hasi zaizu kantuan: «Lilurarik ez, ez dago itzultzerik». •



Gasolindegiek eta ordainlekuek bakarrik geratu dute zure ibilera presatua.

Andoni CANELLADA | FOKU



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Ugalketaren paradigma gainditzten

Gehiegitan, sexuari buruz jardutean, diziplina desberdinetatik egin ohi da, hala nola, erlijioetatik, medikuntzatik edo mugimendu sozialetatik. Gutxienetan egiten da, ordea, sexologiatik. Horrenbestez, asko dira sexuari buruz mintzatzen direnak sexuaz pentsatu gabe, sexuaz ikasi gabe, sexua ikertu gabe. Efigenio Amezua sexologo bikainak argi adierazten du: «Sexua sentitu eta sentsatu egin daiteke, baita pentsatu ere. Bada, azken hori ezinbestekoa da».

Ezagutzen ez dena asmatu egiten da eta hutsune teoriko eta enpirikoa normaltasunaren paradigmarekin bete. Hiztegiak honela definitzen du «paradigma» terminoa: «Zalantzan jarri gabe onartzen den teoria edo teoria multzoa, arazoak konpontzeko oinarri eta eredia eskaintzen duena». Gizarte eta garai bakoitzean, sexualitatea ulertzeko modua printzipio ho-

rren mende egon da, eta, horregatik, gehiengoa norma bihurtu da (normala), eta sexualitatea normatibizatu, pobretu eta erabat murriztu da.

Sexualitatearen xedeak hiru dira eta, horien arabera, hiru ikuspuntu eraiki ditugu: ugalketarena, erlazio-nala eta aisialdikoa. Ugalketa ardatz duen ereduari, harreman erotikoko senar-emazteen artean soilik dira onargarri, betiere, seme-alabak izateko bada. Esparru horretan, harreman erotikoa anonimoak sarri izatea «kontrolaz kanpotzat», patologikotzat, hartzen da. Eredu erlazionalean, jarduera erotikoa intimitatea adierazi eta indartzeko era da, baina debekatuta dago harreman egonkor batean gertatu ezean. Azkenik, aisialdiko ereduari, harreman erotikoen xedea gozatzea baino ez da, nahiz eta tartean direnak euren artean ezezagunak izan.

Egun, gure jokabide erotikokoak erlazionalak eta aisialdikoak direnez,

paradigma erlazionalean eta aisialdikoaren artean gaudela uste dugu. Baina egiten duguna eta egiten dugun hori nondik pentsatzen eta interpretatzen dugun bi gauza oso desberdin dira. Hau da, jokabide erotikoa interpretatzeko erabiltzen dugun abiapuntua ugalketarena da eta ideologia matxistak erabat baldintzatzen du. Beraz, paradigma intelektual nagusia ugalketa ereduari eta sexualitate maskulinoari oinarritzen da.

Sexualitatearen oinarritzeko osagaiak (gorputza-plazera-desira) ugalketaren paradigman funtsatuz gero, gorputza genitalek murrizten da, plazera koito bihurtzen da eta desira erotikoa desira heterosexual bilakatzen da. Horrenbestez, sexu-harremanetan pentsatzen baldin badugu, ugalketa-adina eta koitoa egiten duten bikote heterosexualak baino ez ditugu gogoan izango; hori izango da «normala». Koitoa ez den beste edozein joko erotikok kategoria baxuagoa izango du, atariko hutsa izango da, edo, kasurik onenean, harreman osatu gabea. Txarrean, perbertsioa. Laburbilduz, genitalik gabeko sexu harremanak, baita heteronormatibitate eta androzentrismoak at dau-den sexualitateak eta sexuaren inguruko posizionamendu politikoak ere, tabu, perbertsio, gaixotasun, erradikal eta bazterreko kontsideratzen jarraitzen dugu oraindik ere.

Funtsean, sexu heziketak, sexualitatea ulertzeko eta interpretatzeko abanikoa zabalduz, ugalketaren paradigma gainditzten du. Sexualitatea eta gozamina gorputz guztian kokatuz, desira erotikoa anitza dela ulertuz, sexualitatea ongizatea lortzeko bitarteko dela barneratuz eta umeei, zaharrei eta desgaitasuna duten pertsonen ere badutela onartuz. •



Sexualitatea ugalketaren paradigman soilik oinarrituz gero, plazera koito bihurtzen da ezinbestean.